

Ermuko alargunen elkartea

1990ean
lehenengo aldiz
12 lagun elkartu
ziren eta
Elkartea
martxan jarri
zuten. Egun,
150 bazkide ditu
Alargunen
Elkartek.



-Zein urtetan sortu zen elkartea?

1991ko otsailean eratu zen Elkarte moduan.

-Zenbat kide zarete?

150 lagun inguru gara bazkide. Bazkide izateko urtean 10 euroko kuota jarri behar da, baina 80 urtetik gorakoek ez dute ordaintzen.

-Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Hilean behin Emakumearen Topalekuan batzorde iraukorrean gauden 11 kide biltzen gara. Horrez gain, urtean behin bazkide guztiekin batzar orokorra egiten dugu.

-Zeintzuk dira elkartearen helburuak?

Alargun geratu diren emakumeei, bere bakardetik ateratzeko aukera eskaintzea, depresiotik irtetzeko bide izan eta emakumeentzako ekintza positiboa izatea hain zuzen ere. Aipatu beharra dago, hasieran oso garrantzitsuak izan ziren hiru ekitaldi: Ermuan izan zen Elkartearen Azokan parte hartu genuen, Ermuan Emakume Alargunen Herrialdeetako Asanblada antolatu genuen eta "Ermua hace 60 años" bideoa egin genuen.

Bestalde, interesgarria litzateke, gura ez datozen emakume alargun gazteak euren artean elkartzea eta euren interes eta ardurak elkarrekin konpartitzea.

-Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Orain hasieran baino ekitaldi gutxiago egiten ditugu: hitzaldiak, noizean behin txangoren bat eta urteko batzarra. Gaur egun, euskara ikasten ari den taldea eta josteko tailerra martxan daude eta Gabonetako Tonbola Solidarioa antolatzen dugu. Hasieran irteera gehiago eta hitzaldi gehiago egiten genituen, baina bestelako eskaintzak direla eta, jubilatuenak esaterako, gaur egun jendearen erantzuna ez da hain ona.

-Zuekin harremanetan jartzeko?

Informazioa lortzeko edo bazkide egiteko deitu dezatela 943 03 18 32 telefonora (Nati).

SAN ANTONIO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA
CERVECERIA
ZHCHN
ZYTİK

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna